



**3/2020 JARRAIBIDEA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO FUNTSEZKO ZERTBITZUETAN EMAN BEHARREKO ESTALDURA-ARAUBIDEA EZARTZEN DUENA.**

---

Gaur, 2020ko martxoaren 30ean, Justiziako ministroak ebazpena eman du, Justizia Administrazioaren funtsezko zerbitzuen estaldura 2020ko martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretura egokitzeko.

Aipatutako ebazpena betez Euskal Autonomia Erkidegoan, honako hau

**XEDATZEN DUT**

**Lehenengoa.-** Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko martxoaren 15eko Aginduan finkatutako baldintzetan eta pertsona-kopuruan mantentzen dira Justiziako ministroaren 2020ko martxoaren 30eko Ebazpenaren hirugarren xedapenean jasotako funtsezko zerbitzuak.

**Bigarrena.-** Adingabeen Fiskaltzaren guardia-zerbitzuak, Guardiako Epaitegiek eta Erregistro Zibilek aurrez aurreko erregimenean eman beharko dituzte zerbitzu horiek.

Erregistro Zibileko jarduketei dagokienez, martxoaren 27ko Jarduketa Protokoloan xedatutakoa hartuko da kontuan.

**Hirugarrena.-** Gaiak erregistratzeko eta banatzeko zerbitzua Guardiako Epaitegiak egingo du, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiari dagokiona izan ezik, hori Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoko edo Prozesu eta Administrazio Izapidetzako Kidegoko funtzionario batek egingo baitu, aurrez aurrekoan.

**Laugarrena.-** Idazkaritza koordinatzaileek izendatutako guardiako epaitegietak langileak gaituko dituzte erregistratzeko eta banatzeko lanak egin ditzaten.



**Bosgarrena.-** Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko martxoaren 15eko Aginduak (2020ko martxoaren 24ko Aginduak aldatua) eta Justizia Administrazioako zuzendariaren martxoaren 26ko eta 27ko ebazpenek aipatzen dituzten gainerako langileek ahalik eta lasterren aurkitu eta lanera joateko moduan egon beharko dute beren lanaldiak irauten duen bitartean, hala eskatzen bazaie, urrutitik ezin bete daitekeen edozein zerbitzu emateko, edo gerta daitekeen edozein intzidentziari aurre egiteko.

**Seigarrena.-** Funtsezko zerbitzuak Justizia Administrazioako langile guztiek eman behar dituzte, aurrez aurreko zerbitzua emanda edo lanera inkorporatzeko prest egonda.

Betebehar horretatik kanpo geratzen dira familia eta lana bateragarri egitearekin lotutako nahitaezko betebeharragatiko baimena eskatu dutenak eta bereziki sentibera deklaratuak izan direnak edo aldi baterako ezintasun-egoeran daudenak.

**Zazpigarrena.-** Bake-epaitegietan lan egiten duten langileak prest egongo dira laner inkorporatzeko, martxoaren 27ko Erregistro Zibiletarako Jarduketa Protokoloan ezarritakoaren arabera.

Ohiko arreta-ordutegian eta ordutegi horretatik kanpo eman behar diren inskripzio eta lizentziatarako harremanetarako telefono bat argitaratu beharko da, jendeak ikusi eta erraz eskuratzeko moduko leku batean.

**Zortzigarrena.-** Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak eman behar dituen funtsezko zerbitzuei dagokienez, Lan eta Justiziako sailburuaren 2020ko martxoaren 15eko Aginduan (sailburu beraren 2020ko martxoaren 24ko Aginduak aldatua) ezarritakoaren arabera jarraituko dira ematen.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 30a



M<sup>re</sup> Isabel Gabriel Bellido

**JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA**